

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sustapen Departamentuak Olaberako neurriak proposatu ditu zeharbidean segurtasuna hobetzeko

Zarraluqui kontseilariak gaur goizean zonaldeko tokiko ordezkarietaz azaldu dizkie haiekin egindako bilkura batean

Lunes, 15 de abril de 2013

Sustapen Departamentuak bilkura bat egin du gaur goizean Olaibarko Udalarekin eta Olabeko kontzejuarekin azken horretako zeharbideko zirkulazioaren segurtasuna hobetzeko Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen neurri-sortak ezagutze aldera.

Bilkuraren buru Sustapen kontseilari Luis Zarraluqui izan da, eta Herri Lanetako

zuzendari nagusi Ignacio Nagore ere bertan izan da, departamentuko langile teknikoekin batera. Olaibarko Udalaren aldetik, bertan izan dira, Maria Carmen Lizoain alkatea, bai eta Olabeko kontzejuko alkate Mikel Uriarte ere; biek ala biek departamentuak aurkeztutako lan-ildo berean hainbat ekarpen egin dituzte.

Aukera guztiak zehatz-mehatz aztertu ondoren Sustapenak egindako proposamenak tunel-efektu bat sortzea jasotzen du galtzaden erraiak estutuz ahalik eta abiadura motelena lortzearen, Olaiztik irteera bultzatzea (NA-4212) norabide-aldaketarako puntu gisa eta zirkulazioaren berrantolaketa arrisku-maila murrizteko iparraldeko eta hegoaldeko sarrera-irteerako mugimenduetan.

70.000 euro inguruko kostua izango zuten neurri horiez gain, Departamentuak ere Foru Administrazioaren eta Olaibarko Udalaren artean kofinantzatutako irtenbidea proposatu du, oinezkoentzako gaineko pasabide bat eraikitzea izan daitekeena edo gehiegizko abiadura-alertako argidun displayak jartzea.

Departamentuak irizten du, Udalari esan zaion moduan, semaforoak dituen oinezkoentzako pasabide bat jartzea galtzada gainean zebrabide bat pintatuz, hark iradoki zuen bezala, ez dela bideragarria arriskutsua delako; izan ere, era horretako pasabide baten aurrean oinezkoak izango zuten lehentasunaren hautemateak gidariak hautematen duen bidearen



Sustapen Departamentuaren eta Olabeko Udalaren kideen artean egindako bilkura udalerrirako horretako zeharbidean zirkulazioaren segurtasuneko hobekuntzak aztertzeko.

jarraipenaren aurrean harrapatzeko aukera eta atzetik jota istripua izateko aukera handitzen du.

Gogora ekarri behar da Sustapen Departamentuak iragan abuztuan "kontuz-zeharbidea" seinale osagarriren kartel batzuk jarri zituela jada, bai eta galtzada gaineko soinu-zuko bandak ere gidariak gehiago ohartarazteko. Zeharbidearen segurtasuna hobetzea ekarri duen jarduketak horrek 12.000 euroko kostua izan zuen.

Proposamena, xehetasun guztiekin

Tunel-efektuaren sortzea lortzen da, aipatuenez, galtzaden erraiak estutuz, egun 3,50 metrokoak direnak, eta 3,20 metro zabal izatera pasatzen dira. Hori erdiesten da seinaleztatze horizontal batekin ardatzean pintatutako "oinezkoen babesgune" bat sortuz edo 0,60 metroko galtzada-erdigune bat sortuz, bazterbideak erabat "zebreatz" estutzearen tunel-efektua handitzeko eta erraien kanpoaldean "katu-begiak" jarrita sendotuz.

Olabeko erdigunearen ingurunean zirkulazioko mugimenduen berariazko hobekuntzei dagokienez, proposamena honako hau da: Olaitzeko irteera sustatzea (NA-4212) N-121-A aldera norabide-aldaketarako puntu gisa. Elkargune horretan (hegoaldean dago) irteerako norabidea bakarrik izango da ezker eta eskuinalderako mugimenduekin, eta Olaitzerako iparraldeko sarreran sartzeko norabide bakarrari eutsiko zaio N-121-Areko elkargunea hobetuz.

Era berean, zirkulazioa berrantolatzea bilatzen da iparraldeko eta hegoaldeko fluxuen Olabeko erdiguneko sarrera-irteerako mugimenduetan arrisku-maila murrizteko, betiere errepidearen bi aldeetan dauden establezimenduei tratamendua baliokidea ematen saiatuz:

Ezkerralderako biratzeak N-121-A errepidearen enborretik beste puntu batzuetara eramaten dira; hala, haiek egiteko itxaronaldiak babestutako zonaldeetan egingo dira. Iparraldetik Olabeko hirigunerako sarrera-mugimendua aurrez aipatutako Olaitzeko elkargunean birkokatuko zen, eta hegoaldeetik hotelerakoa, egungo Olabeko elkargunetik egingo zen.

Aldiz, eskuinalderako biratzeak dezelerazioko bi erraiak eraikita babestuko dira errepidearen bi aldeetan, mugimendu horientatik atzetik kolpatzeko dagoen arriskua desagertu dadin.

Azkenik, zonaldearen hiriko efektua sustatzeko eta segurtasuna handitzeko, zeharbidean herriko argiak jartzea aurreikusten da hiru farola eraikiz, bat egun dagoen oinezkoen babesgunean eta beste bi haren bi aldeetan, behar bezala babestu behar direnak. Horretarako, beharrezkoa da Udalak espaloiak eraiki ditzan galtzadaren mugan, eskuinaldean erdigune nagusiaren alboan, eta era gehigarrian eta txikiagoan hotel inguruaren ezker aldean.